

KORONABIRUSA ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

413 positibo berri
2.098 hildako EAEn
16.887 positibo guztira* UCln EAEn

NAFARROAN

578 positibo berri
688 hildako
29.683 positibo guztira UCln Nafarroan

*HERNANIN 594 (+11), ASTIGARRAGAN 164 (+2)

'Irakurketa erraza' egitasmoa jarri du abian Doberak, euskararen erabilera sustatzeko, besteak beste

Irakurketa ulermen arazoak dituzten herritarrei, irakurketa eta informazioa hurbiltzea du helburu, beste askoren artean, Dobera Euskara Elkarteak martxan jarri duen Irakurketa erraza egitasmo honek. Izenematea, irekita dago.

HERNANI DOBERA

Dobera Euskara Elkarteak, hainbat egitasmo ditu eskualdean, hala nola, mintzalaguna eta irakurketa erraza. Azken hau, egitasmo berri bat da, eta asmoa da, irakurketa ulermen arazoak dituzten herritarrei irakurketa eta informazioa hurbiltzea, hizkuntzaren ezagutza areagotzea eta hiztegia barnertzea, euskararen erabilera sustatzea, euskaraz idatzitako literaturaz gozatzea, besteak beste. Irakurketa erraza egitasmoan parte hartuko duten herritarrei,

helduak izango dira, «euskara ikasten ari direnak, edo euskara ama hizkuntza dutenak: gaztelaniaz edo frantsesez alfabetatu diren belaunaldientzat (oihura falta, hiztegi arazoak...), euskaraz alfabetatuak izan diren belaunaldientzat, baina euskaraz irakurtzea zaila egiten zaienak edo ohitura falta dutenak, irakurketarako zailtasunak edo ikasketa arazoak dituztenak...».

Nondik norako egitasmoa

Saio hauetan, 10 lagunekoa taldean, *Irakurketa Errazean*

idatzitako liburu batean irakurketa konpartitzez gain, irakurritakoaren inguruko solasaldiak egiten dira. «Liburuaren edukia hobeto ulertzeko, begiralearen laguntzarekin dinamika ezberdinak landuz».

Egitasmo honetan lantzen diren liburuak, «ardura eta ildo bereziarekin» landuko dira. Eduki, hizkuntza eta formari dagokionez, IFLAren, hau da, Liburutegien Erakunde eta Elkarteetako Nazioarteko Federazioa) arauak jarraitzen dira. «Gainera formatu arruntean idatzitako testuak izan ohi dira».

Doberak jakinarazi du, egitasmoan erabiliko diren liburuak, Hernaniko Liburutegiak eskuratuko dituela. Hori horrela, «saioak iraun bitartean, parte hartzaileek liburuak etxean eduki ahal izango dituzte, baina behin amaituta, liburutegira itzuli beharko dituzte».

Saioen datak eta iraupena

Liburu bakoitzeko, sei saio egingo dira, eta horretarako astean ordubetez bilduko dira egitasmoa parte hartzaileak. Ostegunetan arratsaldeko 18:30etatik 19:30etara hain zuzen, eta datorren ostegunean emango zaio hasiera, azaroaren 5ean, Biterin.

Izenematea irekita dago, eta Doberak jakinarazi du, taldea mugatua izango dela, «10 lagun gehienez». Hori horrela, izena eman nahi izanez gero, «lehenbailehen» egitea gomendatu du Doberak, eta jakinarazi du, taldean parte hartzeko konpromisoa eskatuko dela. **K**

Irakurritakoaren inguruko solasaldiak ere egingo dira

Asteburu honetan ere, zine saioak

HERNANI BITERI

Asteburu honetan ere zinea eskainiko da Biterin. Helduentzat *Padre no hay más que uno 2* jarriko dute, larunbat eta igandean, arratsaldeko 19:30etan, eta astelehenean 16:30etan. Gazteentzako berriz *Mi semana extraordinaria con Tess* eskainiko da, larunbatean eta igandean, arratsaldeko 16:30etan.

Erosketa Bonoak, erabiltzeko epea

HERNANI EROSKETA BONOAK

Hernaniko Udalak, Berriak elkartearekin batera ateratako Erosketa Bonoak erabiltzeko epea, urriaren 31n amaitzen da. Eta jakinarazi dute, bonoak dituzten herritarrek hilabete honetan erabili beharko dituztela.

Bi saio, Joxerra Gartziaeren eskutik

HERNANI EUSKARALDIA

Urriaren 15etik darama Joxerra Gartzia, *Euskaraz bizi, hizkera zorrotzi* buruzko saioak ematen. Ostegun honetan izango da azken aurreko saioa, eta azaroaren 5ean berriz azkena. Izena emateko deitu 689 675 462 telefonora edo idatzi, *euskararidu@dobera.eus* helbidera.

Fernando Sanchezen orde, Beñi Agirre

HERNANI ERROTZEN

Bihar, Hernani Errotzenek antolatutako hitzaldia zegoen, Fernando Sanchez hizlari izanik. «Osasun egoera dela eta ezin du gurera etorri» azaldu dute Errotzenek kideek, eta Beñi Agirre hernaniarrak eskainiko du hitzaldia bere orde, 19:00etan, *Euskalnafarrak naziotik estatura* gaia jorratuz.

Komunetako irisgarritasun eta instalazioen berritze obrak, Goizuetako eskolan

Goizuetako Xalto eskola publikoan, 2020ko uztailean eta abuztu bitartean, komunetako irisgarritasun eta instalazioen berritze obrak egin dira.

GOIZUETA OBRAK

Xalto eskolako komunetan egindako obra honen gainean, Goizuetako Udalak, Hezkuntza departamentuko obra atalari dirulaguntza eskaera egin zion.

Ebatzitakoa

Hori horrela, Unibertsitateetako eta Hezkuntza Baliabideetako zuzendari nagusiaren ekainaren 16ko 180/2020 ebazpenaren bidez honakoa ebatzi zen: komunetako irisgarritasun obrarako dirulaguntzaren onarpena, 16.979 euroko dirulaguntza.

Komunetako instalazioen obrarako dirulaguntza, erreserban gelditu zen dirulaguntza onarpenik gabe. Erreserbako zerrenda honetan, 10garren postuan zegoen Goizuetako Udala. Postu horretan egonik, «aukera haundiak zeudenez erreserbako zerrendatik onartutako zerrendara pasatzeko» Goizuetako Udalak, Xalto ikastetxeko komunetako instalazioen obra erabaki zuen, 24.796,46 euroko (BEZa kanpo) gastua egin du eta behin betiko dirulaguntzaren onarpena egingo duen ebazpenaren zain dago. **K**



2020ko uztailean eta abuztu bitartean egin dira lanak.

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

JOXE MARI EDARITEGIA
FIDELTASUN TXARTELA
Astelehenetik ostiralera 10 kafe hartuta, 11garrena doan daukazu. Gainera, zure bonoa betetzear, zozketan parte hartuko duzu:
ASTEBURU BAT DEBAKO AISIA SPAN
Kale Nagusia, 7
943 55 00 32

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobi.: 665 735 224
20120 Hernani

ZUBIALDE TABERNA
EGUNEKO MENUA
Asteartetik ostiralera
12:30 - 15:30
10,9 €
943 55 33 08
Olaeta 17, behe - KARABEL

GAUR Gaur, giro motelarekin jarraituko dugun arren, euri gubi egingo du eta ordurik gehienetan ateri eutsiko dio. Hego haizea ibiliko da eta kostaldean arratsaldean mendealdera aldatuko da.
Min.12° / Max.17°

BIHAR Biharko, giro ederra eta atsegina dator. Eguntentia freskotik joango da eta behe-lainoa ere sortuko da ohiko ibarretan, baina ondoren urdingune zabalak gailenduko dira. Eguzkia bistan eta ibura polita hartuko du eguraldiak. **Min.11° / Max.16°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEK

Hernaniko
Udala

Astigarra Urdia

Dobera Urdia

GOIZUETA
UDALA

ARANOKO
UDALA

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarra) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarra) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarra) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Castilla Urbietan, 7 (Hernani) **943 552941** Gaeuz: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

EUSKAL
GOBIERNUA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Migrazineko azken saioa gaur, 'El médico Africano' filmarekin

Hasi zen moduan amaituko da Migrazinea, izan ere, gaurkoan *El médico africano* ikusteko aukera izango da berriro ere.



Seloy Zantoko afrikarraren bizitza irudikatzen da, gaurko pelikulan.

HERNANI MIGRAZINEA

Gaur izango da Migrazinearen azken saioa, eta hasi moduan

amaituko da, *El médico africano* filmarekin. Arratsaldeko 18:30etan emango zaio hasiera pelikulari, ohi moduan, Biterin.

Azken saio hau, «berezia» izango dela ohartarazi dute «bizi dugun egoerak behartuta aforoa murriztu baita». **K**

Azaroaren 7an izanen da Pribatutasuna Sarean, Goizuetan

Datorren asteburuan, goizeko 11:00etatik eguerdiko 13:00etara, 2 orduko doako ikastaroa eskainiko da, Goizuetako Ganbaran.

GOIZUETA IKASTAROKA

Urriaren 24rako zegoen aurreikusia egitea Pribatutasuna Sarean saioa, baina «bizi dugun egoerak eragindako hainbat gertaera direla eta», atzeratzea erabaki zuten antolatzaileek.

Hori horrela, datorren asteburuan izanen da aipatutako saioa. Goizeko 11:00etan emanen zaio hasiera saioari, eta bi orduko iraupena izanen du,

beraz, 13:00etan emanen zaio amaiera. Goizuetako Ganbaran emanen da doako saio hau.

Zuzendaria, Gisa Elkarteko Maider Likona kidea izango da, eta berak gidatuko du Pribatutasuna Sarean buruzko jardunaldia.

Saioan, Sare Sozialei buruzko hausnarketa egingen da, «Sare Sozialak gero eta gehiago erabiltzen ditugu gure bizitzako alor guztietan: aisialdian,

ikasketetan, lanean, harremanetan... Baina nolako arrastoa uzten dugu? Nork eskura dezake informazio hori? Nolako ondorioak izan ditzake? Eta etorkizunean?». Galdera guzti hauei erantzutera dator Maider Likona, eta batez ere, «Sare Sozialak egoki erabiltzeko hainbat aholku emanen ditu.

Saioari buruzko informazio gehiago nahi izanez gero, www.sareaneuskaraz.eus webgunean aurkitu daiteke.

Amaitzeko, antolatzaileek bertaratzeko deia egin dute azalduz, «pena merezi duen saioa» dela. **K**

Gazte Asanbladaren hilerokoa, kalean

Hernaniko Gazte Asanbladak, Jario izeneko hilerokoa jarri du abian eta jada kalean eta sarean aurki daiteke.

HERNANI JARIO HILEROKOA

Hernaniko Gazte Asanbladak, iaztik garatu duen komunikabide proiektuak «bere fruituak eman ditu», izan ere, Jario hilerokoa sortu berri dute.

Hileroko honen lehenengo zenbakia jada kalean da, «kalean eta sarean». Bertan Gazte Asanbladaren jardueren berri emateaz gain, bestelako edukia jorratzeko espazioa ere badago, hala nola, erreportajeak, kronika, elkarrizketa eta kolaborazioak, besteak beste.

Asanbladako jakinarazi dute, herriko jende ezberdinaren ekarpenak ere jaso nahi di-

rela, «iritzi forman esaterako, eta arte produkzioak ere izango du bere atala».

«Ez gara isiltzen, hitz jario etengabean»

Jario hilerokoaren sorrera, eta barruan dakartzen edukiei buruz jardun dute Gazte Asanbladakoek, honakoa azalduz: «bartzuetan euri jasak bezain beste hitz egiteko gai izaten gara, ez gara isiltzen, hitz jario etengabean. Baina airean galdu izan dira gehienak, gure buruen barrunbeetan, asanbladaren ingurumarietan, edota gaztetxeko zokoetan. Euri-jasak atertzean, odol jarioaren itxura dute gure

hitzek, mundu honek ez baitu aukera haundirik utzi, tinta gorri idazten baita egunerokoa. Odol eta hitz jarioek marrazten dute gure jarduna, eta berau jasotzera dator Jario, Hernaniko Gazte Asanbladaren Hilerokoa».

Jario hilerokoak, Gazte Asanbladaren hitza eta honen inguruko albisteak jasoko ditu, «Hernanin zein Euskal Herrian gertatzen denaren inguruan sarkontzeko aukerak, kideen ekarpen artistikoak, eta asanbladako zein herriko iritziak».

Jario hilerokoak, ateak irekita ekarpenetarako

Hernaniko Gazte Asanbladak atera berri duen hileroko honetan, edonork egin dezake ekarpena, eta sortzaileek gainera, animatzeko deia luzatu dute. Interesa izanez gero, jario.hilerokoa@gmail.com helbidera idatziz. **K**

Puntuak erantzuten, bertso eskolakoak

Abian jarri du Hernaniko Bertso Eskolak, bertsoan aritzeko ekimena eta Kronika bidez, ariko dira bata besteari erantzuten.

HERNANI BERTSO ESKOLA

Hernaniko Bertso Eskolak, bertsoei indarra emateko ekimen bat antolatu du, jada martxan da eta abendura arte iraungo du. Lehenengo pausua puntuak jartzea izango da, eta puntu horri, bertso batek erantzungo dio. Horrela, «bertso kate moduko bat sortu arte».

Aurreneko puntua, Ioritz Nazabalek, Ekain Tolaretxipiri jarri dio, eta honakoa da: *Zer moduz hasi duzu aurtengo kurtsoa?*

Eta hau izan da, Ekain Tolaretxipiren erantzuna:

*Lehen ebaluaketa
aurrera badoa,
nahiz bukatzeko ere
badeten gogoa
aurtengoa izan da
pixkat arraroa.*

Ekainek, Garaziri jarri dio puntua: *Maskarillakin gabiltz bai gau ta bai egun.*

Orain Garaziren txanda da, puntu honi erantzun beharko baitio. **K**

Autoenplegua sustatzeko dirulaguntza eskatzeko epea, larunbatera arte

GOIZUETA DIRU LAGUNTZA

Goizuetan, 2017ko urriaren 1etik jarudera ekonomikoa martxan jarri duten herritarrek dirulaguntza eskatu ahal izanen dute, Udalean bertan. Hau eskatu dezakete, aipatu moduan, «Goizuetan norberaren kontura 2017ko urriaren 1etik jardura ekonomikoaren gaineko zergan alta emanda duten bizilagunek».

JASOTA BEZALA

Gutuna argitaratzeko ezinbestekoak dira: izena eta bi abizen, NAN edo EHNA erakustea eta telefonoa. | Gehienez 1.800 karaktere onartuko dira. | Kronikak beste hizkuntzetan jasotako kartak euskeratzen ditu. | Kronikak ez ditu bere gain hartzen sail honetan esaten direnak, edo itzultzeko garaian izan daitezkeen gaizki ulertuak. | Irainak, debaldeko salaketak eta difamazioak ez dira onartuko.

Ez naiz berri onaz lotsatzen

Ez naiz lotsatzen maite naue-naz, nirekin leiala denaz, nahiz eta ni berarekin zenbait alditan desleiala izan.

Bere hitzak beti onuragarriak dira, ni aske egiteko, inoren menpe ez egoteko, egian eta argitan bizitzeko.

Txoria-txori abesten dit, aske naizela bera maitatzeko, aske maite nauela gogorazteko.

Bere nahia beti ona, atsegina eta bete-betea.

Bera nire gotorleku eta ihesleku, irrifarra eta poza,

Nire atsedena eta sendagilea. Nire lotsa kentzen didana.

Ez, ez naiz lotsatuko maite nauenaz.

Ez naiz berri onaz lotsatuko.

Joxan Rodriguez Ormaechea

IRAGARKI MERKEAK

Errioguardan eramateko menua. GAUR: Patata gixatuak espinaka eta bakailaoarekin + Krabarroka plantan saltsan egindako mejilloekin + Natillak. BIHAR: Borrajak hirugiharrekin salteatuak eta patata purearekin gratinatua + Arroza konejuarekin + Etxeko yogurra naturala franbuesa mermeladarekin. **10,5 €.**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**